

**EMAKUME ETA GIZONEN  
ARTEKO SOLDATA  
BERDINTASUNAREN ALDEKO  
NAZIOARTEKO EGUNA**



## 2020an EAEko emakume gazte batek gizonezko batek baino 194€ gutxiago kobratu zituen hilean

Pandemiatik geroztik, zaintza lanak duten garrantzia nabarmendu denez, eta feminizaturiko arloa izanik, tendentzia aldaketa eman da non emakumezkoen langabezia tasa gizonezkoena baino handiagoa izateari utzi dion (emakume gazteen %20,5a eta gizon gazteen %23,6 hain zuzen).

Datu hauek erreparatuta berdintasuna lortua dagoela bezala hitz egin daiteke. Baina berdintasun faltsua baino ez da. Tendentzia aldaketa honen epe luzerako ondorioak zeintzun diren aztertzen joan beharko delako. Gainera, langabezia tasa lan prekaritatea eusten duen hanka bat baino ez da.

Izan ere prekaritatearen aurpegia emakume gazte batena jarraitzen du izaten, giza aniztasunen artean adina eta generoa soilik hartzen badira kontutan, noski.

### Datuak:

- *Behin behinekotasuna:*
  - emakume gazteen %68
  - gizon gazteen %57
- *Partzialtasuna:*
  - emakume gazteen %37,3
  - gizon gazteen %27,6



## **EGKren manifestuaren eskariak eta aldarrikapenak:**

Gazteen egoera prekarizatua bada lan merkatuan, emakume gazteen egoera txarragoa da. Kristalezko sabaia, desberdintasun horizontala, partzialtasuna, aldi baterakotasuna, kontziliazioa... errepikatzen diren errealitateak dira.

Hori dela eta, manifestuak biltzen dituen aldarrikapenak ondorengoak dira:

- Gazteen enplegura bideratutako politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea. Hori dela eta, erakunde publikoek baliabideak jarri behar dituzte emakumeek soldata berdinak jasotzeko, lanaldi bikoitzak kentzeko, emakumezkoek eta gizonezkoek aisialdian igarotzen duten denbora berdintzeko, eta lan-munduan agintzen duen sistema heteropatriarkalari loturiko bestelako diskriminazioei amaiera emateko.
- Soldata arrakalaren azterketa egiteko eman beharreko lehenengo urratsa sexuka banatutako datu eguneratuak izatea da.
- Soldata arrakala ezabatzeko enpresa pribatu zein publikoei zigor gogorragoak jartzea, benetako berdintasunera iristeko tresna bezala.



## EGKren manifestuaren eskariak eta aldarrikapenak:



- Erakunde publikoek lan kontratu duinak bultzatzeko neurri efizienteagoak hartzea, gazteen egoera ekonomikoa arintzeko eta etorkizun hobeago bat ziurtatu ahal izateko, horrek dakartzan arazoei ere konponbidea emateko modua den heinean.
- Ezinbestekoa da Berdintasun Planak bultzatzea eta enpresa eta zerbitzu ezberdinetan garatzea eta inplementatzea. Berdintasun erreala garatzeko neurriak ezartzen direla ziurtatzeko.
- Aldi baterakotasunezko kontratuak murriztea eta kontratu mugagabeak sustatzeko neurri gehiago hartzea.
- Partzialtasunarekin bukatzea.
- Kotsiliaziorako neurri erreal eta eraginkorrak martxan jartzea.





PDF

P



Document



Elkarte hauek atxiki dira manifestura: CCOO Gazteak, Gazte Abertzaleak, LSB-USO, Euzko Gaztedi (EGI), Rebeldía eta Aldarte.